

beldurra ere  
EUSKARAZ

**EUSKARAZ**  
ESKAITZEN DIREN  
FILMAK

*Donostia*  
**Fantasiazko  
eta Beldurrezko  
Zinemaren XXII. Astea**  
*urriak 29 - azaroak 4*  
**2011**



VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Antolatzailea

**donostiakultura.com**  
San Sebastián, ciudad de la cultura



Babestek





## HAURRENTZAKO ZINEMA

### ORDEZKO ANDEREÑOIA

(*Vikaren*, 2007)

Ole Bornedal. Danimarka. 76 min

Seigarren mailako maistra berriak guztiz engainatuta dauzka ikasleen gurasoak, irakaslerik onena dela sinetsarazita. Ikasgelako ateak ixten direnean, itxurak egiteari utzi, eta gaizto baino gaiztoago bihurtzen da, Edumezuriren sorgina baino gaiztoago. Baina ez da hori txarrena; umeei pentsamenduak

irakur diezazkieke. Eta oraindik okerrago: ez dirudi gizaki bat denik. Eta gizaki bat ez bada, zertan ari da Lurrean? Zergatik eraman nahi ditu umeak Frantziako eskola-lehiaketa batera? Eta, batik bat, nola egin behar zaio aurre alien bati?

Aurkezlea





## BAKARRIK DENEN KONTRA

(*Seul contre tous*, 1998)

Gaspar Noé. Frantzia. 93 min

Emaztea etxetik joan eta gero, harakin batek (Philippe Nahon) alaba jaioberria zaintzeko ardura hartuko du. Urteak joan dira, neska gazteak bere lehenengo hilerokoa izango du, eta horrek tragedia eragingo du familian. Neskak ez du min berri hori ezagutzen eta beldur da. Aitaren harategira doa, laguntza eske, baina bidean langile batekin topo egin du eta langileak seduzitzeko saio bat egin du. Bizilagun batzuk gertatzen dena ikusi eta neska aitarengana eramango dute. Gona odoletan ikusita, langileak neska bortxatu duela pentsatuko dute guztiek. Bere onetik

aterata, harakinak bere bidean gurutzatu zaion lehenengo langilea sastatuko du. Gaspar Noé zuzendari argentinarraren opera prima da, **Carne** film ertainaren ostean egindakoa. "*Harakin ohi bat bere herriko erraien aurka bakarrik borrokan*" edo gauza bera den **Bakarrik denen kontra** lana *off-en* egindako kontakizun klaustrofobikoa da. Protagonistak bizitzari aurre egin nahi dio, ez ganibet bati bakarrik helduta, baizik eta askoz ere arrikutsuagoa ere izan daitekeen zerbaiti, hots, bere moralari.



## LARANJA MEKANIKOA

*(A Clockwork Orange, 1971)*

Stanley Kubrick. Erresuma Batua. 137 min

Alexek (Malcolm McDowell) biziki maite du musika klasikoa, eta baita indarkeriarik bortitzena ere. Talde basati bateko kide da, haiekin gurutzatzeko zoritxarra duen edonoren aurka amorruraz irrazionalerik ezagutzen ez duen banda batekoa, hain zuzen ere. Poliziak Alex atxilotuko du, eta nazka-terapia bat egingo dio inguratzen duen guztia suntsitzeko

duen nahi geldiezina sendatzeko. Anthony Burgess izen bereko lanaren egokitzapen berritzailea, estetiko eta bortitza da. **Laranja mekanikoa** X gisa sailkatua izan zen Estatu Batuetan, eta Erresuma Batuko komunikabide batzuk hainbat delitu inspiratu izana leporatu zioten filmari, horien artean, erailketa bat eta bortxaketa bat.





## GIZAJALEEN HOLOKAUSTOA

(*Cannibal Holocaust*, 1980)

Ruggero Deodato. Italia. 95 min

Espedizio bat Amazonasera doa helburu bakar batekin: tribu basati batzuen jokabidea grabatu nahian desagertutako lau erreportariak aurkitzea. Monroe irakasleak (Robert Kerman) zuzentzen duen espedizioa etxera bueltatuko da, baina lehen taldeak oihanean egindako filmaketekin soilik. Filmaketa horietan hilabete batzuk lehenago oihanean gertatutakoa grabatuta dago.

Dokumental itxura edukitzeagatik eta erakusten dituen irudi gordinengatik, oso imitatua eta debekatua izan da **Gizajaleen holokaustoa**. Lanak mondo filmen eragin zuzena dauka, eta oso ezaguna egin zen, batez ere, Ruggero Deodato zuzendariari erailketa egotzi ziotelako (nekez lortu zuen errugabe zela frogatzea), eta filma hainbat egunez bahituta egon zelako.



## ARLOTEA ESKOPETAREKIN

(*Hobo With a Shotgun*, 2011)

Jason Eisener. Kanada. 86 min

*Zombies's Closet* web orri ezabaezin eta saihestezinean irakurri dugunez, film harrigarri honek –gainkargatutako eta hiper-aireztatutako koloretan egina, eta haragi, odol eta *grindhouse* zeluloidez betea– Bizitzari, Heriotzari, Hutsari, Mendekuari eta Erredentzioari buruzko filosofia bati eusten dio, Camus edota Bukowski liluratzeko modukoa. Ezin zoragarriagoa, batzuen ustez. Hasteko, ezin deskribatu daitekeen estolda batean tratatuta dagoen burua askatzeko ahaleginak ikusiko ditugu filma honetan, eta

ondoren, eskolako autobus bateko umeekin egindako barbakoa bat. Film honekin azpimundu absolutura itzuli da Rutger Hauer; Orionetik zaborraren azpimundurainoko erorketa askea. Jason Eisenerrek zuzendu du lan hau, eta ziur, istorioa eta moduak ezagunak egiten zaizkizuela: **Hobo With a Shotgun** Tarantinok, Rodríguezek eta horien lagunek antolatutako **Grindhouse** jaialdian eskaini ziren gezurrezko trailerretako bat izan zen (gezurrezkoak baina ederrak). Ez galdu gaizkilea besondoarekin hiltzeko jarraibideak.



## BEGILUZE LIZUNA

(*Peeping Tom*, 1960)

Michel Powell. Erresuma Batua. 111 min

Gizon bat erakusleiho baten parean zain dagoen emakume batengana hurbilduko da. Gizonak kamera bat darama beroki azpian erdi ezkutatuta. Emakumea prostituta da, eta 2 libera nahi ditu zerbitzuagatik. Isilik, apartamentu batera iritsiko dira; iritsiko gara. Bertan, emakumea erantzten hasiko da, gogogabe, gure begiraden aurrean. Egun horretarako dituen asmoak erakutsiko dizkigu gizonak; hori da, behintzat, emakumearen begirada ikaratuak ezagutzera emango diguna. Emakumeak bere zoria zein izango

den berehala ulertu duela dirudi: azken bezeroa izango duen horrek sentsazio berriak nahi ditu. Zabal-zabalik dagoen begi baten lehen planoarekin hasten da Michael Powellen lana. Garai bateko kritikari guztiak aztoratu zituen lana, denboraren poderioz, *voyeurismoari*, indarkeriari eta zinemari buruzko gogoeta egiten duen kultu-filma bilakatu da. Bertan, zuzendariak bere senetik kanpo dagoen Mark Lewis (Karlheinz Böhm) maniakoaren konplize bihurtzen du ikuslea.



## TROLL-EHIZTARIA

(*Troll Hunter / Trolljegeren*, 2010)  
André Øvredal. Norvegia. 103 min

Trailerrak argi eta garbi adierazten du: "*Norvegiarra da garai hauetako film onena. Ikusten duzunean ulertuko duzu zergatik*". Trailerra interneten eskuragarri dago, baina, aurretik, produktoreek hainbat teaser igo zituzten sarera planetarteko efektua sortu nahian. Guk, erretinan eta ahosabaian **Død snø / Dead Snow** laneko zonbiak ditugunok, benetan sinesten dugu trailerrak dioena, filma ikusi gabe ere. Lehenik, izugarri gustatzen zaigulako Sundance jaialdian (bertan estreinatu zen lana, eta estreinatu bezain laster, bazegoen *remake* yanki bat egiteko beharra ikusten zuenik) kritikari batek

"umore nordikoa, ezin lehorragoa" hitzekin definitu zuena. Bigarrenik, troll gaiztoak ikusteko irrikatan geundelako; troll boskimano eta odoltsuak, **David gnomoa** telesaileko protagonista ergelak ez bezalakoak. Hirugarrenik, bat gatoz trollak harrapatzeko (edo filmatzeko) kristaua ez izatea komeni dela diotenekin: antza, trollak gai dira odol luteranoa edo katolikoa hainbat miliatara usaintzeko. Laugarrenik, troll izango banintz, nik ere irentsi nahiko nituzkeelako zinema egiteko Michael Moore erreferentzeta eta eredutzat hartzen duten ikasle mukizuak.





## DEABRUTZEA

(*Possession*, 1981)

Andrzej Zulawski. Frantzia-AEF. 127 min

Marc (Sam Neill) bidaia batetik itzuli eta emaztearekin eta semearekin elkartu da Berlinen. Baina, ongietorria ez da Marcek espero duena. Anna (Isabelle Adjani) aldatu egin da. Eztabaidan hasiko dira, eta emakumea etxetik joango da. Senarrak ez du emaztearen jarrera arraroa ulertzen, eta ikertzaille bat kontratatuko du Annaren pausuak jarraitzeko. Horrela, Anna zoritzarreko misterio bat ezkutatzen duen apartamentu

batean bizi dela deskubrituko du. Kezkagarria, estugarria, gaixotia, erradikala... horrelako adjektiboak erabili izan dira David Cronenbergren **The Brood** lan laudatuarekin edo Lars von Trieren **Antichrist** filmarekin alderatua izan den lan hau definitzeko. 30 urteren buruan, erantzunak baino galdera gehiago eskainiko dizkigu Zulawskiren amesgaizto polemiko honek.



## HESOLEN LURRALDEA

(*Stake Land*, 2010)

Jim Mickle. Estatu Batuak. 98 min

Kontuz, banpiroak! Baina, berriak. Banpiro hauek ez dute Kondearekin zerikusirik. Ezta New Orleanseko jauntxoekin, Carpenterarrekin, edota **Twilight**, **I Am Legend** eta **Blade** filmetako pertsonaiekin ere. Arraza berri batekoak dira, gurearen eskrezentzia den arraza batekoak, zehazki. Lepoa egingo genuke jada arekatan gordeta zeudela McCarthyk *The Road* idatzi eta Hillcoatek filmatu zuenean. **30 Days of Night** filmeko banpiroak baino askoz ere krudelagoak dira hauek. Zerriak. Zarpailak.

Zonbiak. Ez dute odola zurruputzen. Ez dute zurrut egiten: lepoak mozten dituzte, gorputzak matxetez zatitzen dituzte, zukua ateratzen dute eta erraiak ateratzen dituzte. Jim Micklek zuzendu du film harrigarri hau, **Pride and Glory** edo **Transamerica** lanetan kameralari gisa aritu denak, alegia. *Western* etsigarria da, basoetako film bat da, protagonistak besteak akabatzen hiltzen diren izaki miragarri horietakoak dituen Apokalipsia: Damici, Connor Paolo, Danielle Harris eta Kelly McGillis.



# SANTUA

(*Sint*, 2010)

Dick Maas. Holanda. 88 min

Baten batek (Coca-Cola eta Hadom Sundlom) Aita Noel asmatu aurretik existitu zen San Nikolas. Santuak opariak eramaten dizkie Europako iparraldeko haurrei, eta Oriokoei herriko zaindaria den heinean, abenduaren 5eko gauean. Dick Maasek egia kontatzea erabaki arte, San Nikolas apezpiku zintzo, jakintsu eta eskuzabala zela uste izan dugu guztiok. Baina, ez da horrela.

**Amsterdamned** lanaren egileak begiak irekiko dizkigu: San Nikolas XVI. mendeko apaiz gaiztoa eta krudela da, hilarazi zutenean

betiko mendekua aldarrikatu zuena. Bere heriotzaren urteurrenean ilargi bete dagoen egunetan (36 urtean behin, gutxi gorabehera), Niko zaldi fantasma baten gainera igotzen da eta sarraskirik gordinenak eragiten ditu, odola eta gorputz-zatiak edonon utzita. Europa fantastikoa errenditu egin da momentu ezin zoriontsuagoak (adibidez, Nikolasek Amsterdameko teiatuetatik lauhazka ihes egiten duenean) dituen komedia beldurgari honen aurrean.



## WAKE WOOD

(2010)

David Keating. Erresuma Batua. 91 min

Egunsentiko biztanle guztiek jakin badakite Hammer bere errautsetatik berpiztu dela, hilen mundutik itzuli dela, eta berriz ere beldurrezko filmak egiten hasi dela. Odola dario gure **Let Me In** film kuttunaren bertsio estatubatuar aparta honetan. **The Resident** lanaren ondoren, 60ko eta 70eko hamarkadetan gure amesgaiztoak bete zituzten produktoreak haien jatorrietara itzuliko dira, Gales, Eskozia edo Ingalaterrako herri galduetara, non **The Wicker Man** bezain erikorrak diren istorioak gerta daitezkeen. Oraingoan, Irlandara itzuli

dira. Istorio honetan, komunitate batek hildakoak gure artera itzularazteko errituala ezagutuko du: arraroa, eskatologikoa, aberetiarra, magia beltzaren zesarea bidezko jaiotze hutsa. HIRU EGUN SOILIK. Gogoan izan Jorge Grauren **No profanar el sueño de los muertos** lana, eta baita, Ibáñez Serradoren bere **Historias para no dormir** lanean esandakoa ere: “ez dituzu hildako seme-alabak mundu honetara bueltan ekarri”.





## THRILLER. FILM ANKER BAT

*(Thriller. A Cruel Picture / Thriller. En grym film, 1974)*

Bo Arne Vibenius. Suedia. 106 min

70eko hamarkadako lan adierazgarrienetakoa da. Hiru egunetan idatzi zuen Bo Arne Vibenius zuzendari bitxi eta film *loverrak* (haren hitzetan), armadako sarjentu izateari utzi eta zuzendari gisa egindako lehen lanak porrot egin, eta inoiz egindako filmik komertzialena egitea erabaki ondoren. Horrela sortu zen mendekuari buruzko istorio hau. Agure batek Madeleine neskatala bortxatu du, eta horren

ondorioz, Madeleine mutu geratuko da betiko. Urte batzuk geroago, proxeneta batek Madeleine bahituko du, eta heroina emango dio ihes egin ez dezan. Sexualki esplotatzen duten bitartean, Madeleinek borroka-arteak ikasiko ditu, eta baita tiro egiten eta gidatzen ere. Mendekua prest dauka. Film bihozgabea, lehorra eta izugarria da, zinemagile ugari imitatu edo omendutakoa.

# FILM LABURREN LEHIAKETA (165 min)

**The Astronomer's Sun** (2010). Simon Cartwright, Jessica Cope

**Bunny the Killer Thing** (2011). Joonas Makkonen

**The Centrifuge Brain Project** (2011). Till Nowak

**Je te survivrai** (2011). Mathias Gomis

**Little Quentin** (2010). Albert 't Hooft, Paco Vink

**A Lost and Found Box of Human Sensations** (2010)

Martin Wallner, Stefan Leuchtenberg

**Modern Family** (2011). Kim Kwang-bin

**Mourir après de toi** (2011). Spike Jonze, Simon Cahn

**Never Ever Open It** (2011). Damian McCarthy

**Paths of Hate** (2010). Damian Nenow

**Plume** (2011). Barry JC Purves

**Save the Rhinoceros** (2011). Malakias


**She's Lost Control** (2011). Haritz Zubillaga

**Suffer** (2010). Kimani Ray Smith

**Suiker** (2010). Jeroen Annokkeé



# EUSKADI FANTASTIKOA VII



*Donostia*

**Fantasiazko eta Beldurrezko  
Zinemaren XXII. Astea**

Babeslea

**EL DIARIO VASCO**

## VIII. KOMIKI JARDUNALDIAK

**ERAKUSKETAK**

**Arantza Sestayo**

Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)  
urriak 29 – azaroak 12

**Rober Garay**

Príncipe Zinemak  
urriak 29 – abenduak 4

# PROGRAMAZIOA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

## LARUNBATA – URRIAK 29

HAURRENTZAKO ZINEMA

12:00

ORDEZKO ANDEREÑOIA

(*Vikaren*, 2007)

19:45

BAKARRIK DENEN KONTRA

(*Seul contre tous*, 1998)

22:30

LARANJA MEKANIKOA

(*A Clockwork Orange*, 1971)

## IGANDEA – URRIAK 30

17:00

GIZAJALEEN HOLOKAUSTOA

(*Cannibal Holocaust*, 1980)

19:45

ARLOTEA ESKOPETAREKIN

(*Hobo With a Shotgun*, 2011)

## ASTELEHENA – URRIAK 31

17:00

BEGILUZE LIZUNA

(*Peeping Tom*, 1960)

19:45

TROLL-EHIZTARIA

(*Troll Hunter / Trolljegeren*, 2010)

## ASTEARTEA – AZAROAK 1

17:00

DEABRUTZEA

(*Possession*, 1981)

19:45

HESOLEN LURRALDEA

(*Stake Land*, 2010).

## ASTEAZKENA – AZAROAK 2

19:45

SANTUA

(*Sint*, 2010)

## OSTEGUNA – AZAROAK 3

19:45

WAKE WOOD

(2010). David Keating

## OSTIRALA – AZAROAK 4

19:45

FILM LABURREN LEHIAKETA

00:00

THRILLER. FILM ANKER BAT

(*Thriller. A Cruel Picture / Thriller.*

*En grym film*, 1974)

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira euskarazko azpitoluekin ORDEZKO ANDEREÑOIA salbu, euskaraz emango da.



*Donostia*

**Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea**

**EUSKARAZKO**

**EMANALDIETARAKO**

Txartel honen truke sarrera eskuratuko duzu (sarrerak agortu ez badira)

Ez du balio haurrentzako filma eta **Thriller. Film anker bat** ikusteko.